


Lezoko zine agenda

EKAINA

JUNIO

2006




000
a
ma
zine

Osteguna / Larunbata **2,00 €**

Larunbata 16:30etan **1,00 €**

OSTEGUNA • jueves



HAPPINESS

Duen argumentu zirikatzailearen ondorioz, hasieratik eztabaidatsua izan da pelikula hau. Lauzpabost istorio kontatzen dira eta guztietan pertsonak elkarrekin harremanetan jartzeko duten beharraren berri ematen da. Pelikula *Hainbeste errepresio beharrezkoa al da?* galderari erantzuteko saiakera da zuzendariaren hitzetan. Bigarren mailako antzezle lanetan primerakoa izan den Hoffmanek, paradoxikoki, 2006ko aktore hoberenaren Oscarra irabazi du. Pelikulak berak, FIPRESCI saria jaso zuen Cannesen 1998an.


1998, EEBB. 134 min. Todd Solondz.
Jane Adams, Jon Lovitz, Philip Seymour Hoffman, Dylan Baker, Lara Flynn Boyle.



MIFUNE

Copenhaguen bizi den exekutibo baten ezkontza egunean telefono dei bat jasotzen du: bere aita hil da. Hirian bere nekazari iraganari buruz ez dio inoiz inori ezer esan, ezta bakarrik konpontzeko gai ez den anai bat duenik ere. Emakume bat kontratatzea erabakiko du eta, nola ez?, hortik aurrerakoak amodioak mugituko ditu! Jacobsen, Lars von Trier, T.Vinterberg eta K.Levring-ekin batera Dogma 95 mugimenduaren sortzaile eta eragileetako bat da. Honako hau aipatu mugimenduko hirugarren pelikula da. Hiru sari jaso zituen Berlingo zinemaldian 1999an.


1999, Danimarka, Suedia. 98 min. Søren Kragh Jacobsen.
Iben Hjejle, Anders W. Berthelsen, Jesper Asholt, Emil Tarding.



LA CASA DE LOS BABYS

Adopzioaren gaia gizartean orokorrean eta Euskal herrian zehazki, gero eta gehiago entzuten den gaia eta familia osatzeko erabiltzen den formula da. Saylesen pelikula honetan gai hori lantzen da: adopzioarena. EEBBetatik 6 emakume Mexikora doaz haurrak errazago lortu daitezkelakoan. Sayles ezagutzen duenak badaki bere pelikulak gizarte gaiak salatzen erabiltzen dituela. Beraz ekuazioa argi dago: adopzioaren inguruko mafiei buruzko gaurkotasuna duen filmea.


2003, EEBB, Mexiko. 95 min. John Sayles.
Marcia Gay Harden, Daryl Hannah, Maggie Gyllenhaal, Lili Taylor.



LAS TORTUGAS TAMBIÉN VUELAN

Irango eta Turkiako mugen inguruan kokatua dagoen Kurdistaneko herririka bateko biztanleak etsi-etsian dabiltaza antena paraboliko baten bila. Estatubatuarrek Irak bonbardatu behar dutela entzun dute eta horren inguruko berriak ikusi nahi dituzte. Inguruko beste herri batetik datorren familia bateko haur elbarriak bihozkada bat du: gerra hastear dago. Donostiako zinemaldian, 2004ko edizioan, bi sari irabazi zituen eta gauza bera egin zuen 2005ean Berlinen.

20004, Iran, Frantzia, Iraq. 98 min. Bahman Ghobadi.
Soran Ebrahim, Avaz Latif, Saddam Hossein Feysal, Hiresh Feysal Rahman.



DELICATESSEN

Sin City-rekin batera, *Delicatessen* izango da komikiekin ezaugarriak, marrazki bizidunak edo animazioa ez den formatuetan, hobekien egokitu den pelikula. Pelikularen estetikak argazkia eta irudi errealeak euskarri baditu ere, benetako komikia dirudi erabiltzen diren objektuen, paisaien eta bereziki koloreengatik. Bi zuzendari hauek ondorengo pelikuletan bide horri eutsi badiote ere, komikiaren ezaugarriak moldatzen joan dira.

Cesar, Europa eta Sitgeseko Fantasia eta beldurrezko zinemaldian sari asko eta 1991, Frantzia. 99 min. Marc Caro & Jean-Pierre Jeunet.
Marie-Laure Dougnac, Dominique Pinon, Pascal Benezech, Jean-Claude Dreyfus.

LARUNBATA • sábado



BETIZU IZAR ARTEAN

Uztarock galaxiako ikuskizun-areto orbital erraldoia bat da. Bertan galaxiako lehiaketa musikal garrantzitsuena ospatzen da urtero. Betizuak ez dira honen aldekoak, baina, ezustean, bertan jotzeko gonbitea jaso dute. Eztabaida luze baten ondoren joatea erabakiko dute. Betizu da horren aurka dagoen bakarra. Eta zuk? Behin Uztarockera iritsita, Betizuk guztia iruzurra dela jakingo du. Guztia musikaren bidez unibertsoa kontrolatzeko plan baten barruan dago.


2003, EH. 79 min. Baleuko.
Marrazki bizidunak.



TRIKI, TRAKA, TRON (04)

Txirri, Mirri eta Txiribiton izango dira ziurrenik euskal pailazo zaharretakoak eta ezagunenetakoak. Belaunaldi ezberdinak beren emaldi umoretsuekin denbora atseginak pasatakoak dira. Gaurko proiektzioan, beren abesti eta istorio barregarriez tartekatutako emanaldiaz gozatzeko aukera izango duzu Gezalara hurbilduz gero.

2002, EH. 60 min. Txirri, Mirri eta Txiribiton.
Txirri, Mirri eta Txiribiton.



HARTZ TXIKI

Marrazki bizidun hauetako protagonista Hartz Txiki da, hartz ameslari bat. Pelikula honetan Hartz Txiki eta bere lagunak abenturak ikusteko aukera izango duzue. Jakin min eta irudimen handiz leku berriak ezagutzera joango dira, eta gauza liluragarriak gertatuko zaizkie. Ama ez da inoiz urrun ibiliko. Ez galdu Hartz Txikiren mundu liluragarri eta dibertigarria!

1996, Kanada. 70 min. Raymond Jafelice.
Marrazki bizidunak.



BEATRIX POTTER 3

Hiru ipuin kontatzen zaizkigu marrazki bizidun koloretsu eta bizi hauetan: *Untxien eta Luzinda sagutxoaren* ipuina, *Juan Hiri eta bi sagu bihurriten* ipuina eta *Raposo Jaunaren* ipuina. Lehehengoan untxi batzuk bahitzen ditu Gregorio jaunak eta Lucinda sagutxo horiek askatzera joango da. Bigarren goan Timoteo eta bere gonbidatua denbora-pasa dabilzala bi sagutxok jostailu guztiak lurrera botako dituzte. Azkenengoan, zazpi sagutxo dira zaku batean sartu eta borondatez kontra eramaten dituztenak.


2003, EB. 78 min. Geoff Dunbar.
Marrazki bizidunak.



BIG FISH

Tim Burton zoragarri bezain liluragarriaren beste istorio ahaztezina. Tim Burtonen berezitasun nagusia unibertso bereziak sortzeko duen gaitasuna da. Burtonek bi arlo lantzen ditu: pelikulak eta animaziozko istorioak: *Eduardo manostijeras*, *Ed Wood*, *Batman* edo *Mars Attack*, *Charlie y la fábrica de chocolate* bezelako izenburuen ardura du. Horietako bakoitza, aipatu moduan, unibertso berezi bat da. Beraz, animo! aparteko antzezle talde batek kontatutako bi orduko ipuin zoragarri bat ikusteko aukera duzu!

2003, EEBB. 125 min. Tim Burton.
Ewan Mc Gregor, Albert Finney, Billy Crudup, Jessica Lange, Helena Bonham Carter.




EL MAQUINISTA (EL HOMBRE SIN SUEÑO)

Ekoizpenen mundua batzuetan arraroa edota berezia izan ohi da zinema munduan. Hau kasu bitxi horietako bat da. Espainiar ekoizpena, zuzendari eta antzezle kanpokoak (Aitana Sánchez-Gijón izan ezik). Pelikulan parte hartzen duen antzezle taldea, dimentsio hauetako ekoizpenetarako deigarria da: aipatu Sánchez-Gijónen presentziaz gain, Christian Bale, Jennifer Jason Leigh edo Michael Ironside gaizto eternala. Benetako thriller interesgarri eta gomendagarria.

2004, Espainia. 102 min. Brad Anderson.
Christian Bale, J. Jason Leigh, Aitana Sánchez-Gijón, M. Ironside, J. Sharian.

EMANALDIRIK EZ DAGO

DANTZA TOPAKETAK KLAKETA EMANALDIA "Tip Tap Clap Taldea"



SUPER SIZE ME

Dokumental honen zuzendariak bere burua erabili zuen esperimentua moduan pelikula hau errodatzeko. Spurlocken ustetan *fast food* (janari azkarra) bezala ezagutzen duguna erakargarria bada ere, menpekotasuna sortzen du eta gainera hilgarria da. Esperimentuaren funtsa honakoa zen: hilabete batez janari azkarrak ematen dituzten lekuetan bakarrik jatea. Azkenean, aurreikusitako ondorioak jasango ditu eta ia behin betikoa ere.

2004, EEBB. 100 min. Morgan Spurlock.
Morgan Spurlock, John Banzhaf, Bridget Bennett, Kelly Brownell, Ron English.

AUDITORIUMA

Gezala

EKAINA - junio

eguna/día	ordua/hora	pelikula
OSTEGUNA 1	22:00	HAPPINESS
LARUNBATA 3	16:30	BETIZU IZAR ARTEAN
LARUNBATA 3	22:00	BIG FISH
OSTEGUNA 8	22:00	MIFUNE
LARUNBATA 10	16:30	TRIKI, TRAKA, TRON (04)
LARUNBATA 10	22:00	EL MAQUINISTA (EL HOMBRE SIN SUEÑO)
OSTEGUNA 15	22:00	LA CASA DE LOS BABYS
LARUNBATA 17	16:30	HARTZ TXIKI
OSTEGUNA 22	22:00	LAS TORTUGAS TAMBIÉN VUELAN
LARUNBATA 24	16:30	BEATRIX POTTER 3
LARUNBATA 24	22:00	SUPER SIZE ME
OSTEGUNA 29	22:00	DELICATESSEN

JAZZ KONTZERTUA

► Teresa Zabala 5tet

Ekainak 9 ostirala 22:30etan
GEZALA AUDITORIUMEAN



Sarrera
5,00€

Taller de Musics tailerreko Big Band taldeetan parte hartu zuen, eta aipatutako musika tailerre pianoa eta armonia irakatsi zituen.


Jazza baino gehiago, musika modernoa egin nahi zuen Teresa Zabalak Iruñatik Bartzelonara zuenean eta bertan ezagutu zituen egun bere boskotea osatzen dutenak: Alejandro Mingot g rran, Miguel, Pintxo, Villar saxuan, Iosu Izagirre kontrabaxuan, eta Hasier Oleaga baterian.

2004ko neguan *Euria* izeneko diskoa kaleratu zuten. Swing, cha-cha-cha eta bolero doinuek egiten dute jazz pasarteekin, betiere askatasunaren izenean, diskoan eta euren zuzenekoetan.

ERAKUSKETA

► Alvaro Ledesma

Ekainak 5etik 30ra
ordua: 9:00-14:00 (Astelehenetik-Ostiralera)
KULTUR ARETOA (Donibane kalea,2)



Behin eta berriro sorkuntzaren mundua nola enfokatu definitzen saiatzen da. 1995ean Burgosen Obra Pu koen Ingeniaritza ikasten hasten da. Ikasketak alde batetik, artea bestetik, ordura arteko ibilbide paraleloa kin jarraitzen du. Bertan idazleak, poetak eta humanistak ezagutuko ditu eta bere ibilbidean izandako eraq aitortuko du.

Ikasketak bukatuta, Donostiara itzuliko da eta ordura arte apartekoak izan diren ibilbide profesionala eta ar koarekin bat egitea erabakitzen du aitaren tailerrean buru-belarri sartuz. Bertan burdina ezagutu eta eraldat ikasiko du, eraldatzearekin batera formak sortu ditzakela ikusten du eta, beste material mota ezberdinak eza tzearekin batera, bere *benetako* bide artistikoari ekiten hasten da ia urrats garrantzitsu horretaz konturatu gab

1975ean, Erreterian jaioa da **Álvaro Ledesma** eskultura lea. Gaztetatik hasi zen artearen eta sorkuntzaren munduan: musika munduan korista eta instrumentu jole, litera ran narrazio motzak idatziz, antzerki munduan antze lanak eginaz... Aitak sartzen du budinaren munduan be duen errementaritza tailerrean. Ikasketak eta arteari esk nahi dion denboraren artean ezin eramanak sortzen zaiz

ANTZERKIA

► Orratx! Ttiki

Ekainak 22 eta 23 17:00etan
GEZALA AUDITORIUMEAN



Ander Muñoz, Iune Okhasa, Maider Navas eta Enara Arruti.

Antzezleak azaltzen diren eran: Garazi Muñoz, Maddi Olaziregi, Lierni Trinkado, Ju Mayo, Jokin Kuesta, Unai Fresnedo, Idoia Lopez, Jaione Quiñones eta Ekhiñe Legorbu

Antzezleak: Iraia Ibañez, Unai Fresnedo, Jaione Quiñones, Ane Lasa, Jokin Kue Idoia Lopez Ander Muñoz, Lierni Etxebeste, Iune Okhasa, eta Ekhiñe Legorburu.

Zuzendaritzan: Xabin Larrea, Begoña Amonarriz / *Ikuskatzailea:* Lierni Fresnedo
Laguntzailea: Begoña Azpiazu

1. Antoxin herensugearen mirari
2. Ortzadarraren istorioa
3. Eskola zoroa


Antzezleak azaltzen diren eran: Ihintza Fresnedo, Li Etxebeste, Iraia Ibañez, Ane Lasa, Amets Saras

DANTZA TOPAKETAK

Oraindik orain saio ugari egon arren, Euskal Herriko Goi-mailako Dantza Ikastetxerik ez dago. Gaur egun akademia pribatuak, dantza taldeak eta hainbat udaletako dantza tailerrak dira ikasteko gune bakarrak. Goi mailako dantzari ugari kanpora joan behar izan du (Igor Yebra, Lucia Lakarra...). Bestalde, dantza emanaldiak herrietan ez dira behar adinako maiztasunarekin programatzen eta programatzen direnean, askotan, sarreren salneurria oztopoa bilakatzen da.

Gurean, Lezon, dantza tradizionala oso eza-guna izan arren, beste dantza moten alde keinua egin nahi dugu. Aurten hasita, dantza mota ezberdinak iragarri eta sustatu nahi genituzke. Euskal folklore tradizionaletik abiatuta, klaketa, dantza garaikidea edota dantza estilo berriak eskurazki nahiko genituzke. Bestalde, denborak gero eta lausoa-go bihurtu dituen dantza garaikidearen eta beste diziplina batzuen arteko mugen apurketatik datozen ekarpen berriak ere ezagutu nahi ditugu.

Sarrera
5,00€



Ekainak 16 ostirala 21:30etan KIROLDEGIAN MURIXKA DANTZA TALDEA

DANTZA TRADIZIONALA KURTSO AMAIERAKO EMANALDIA

Hirurogei dantzarik gora duen Murixka Dantza taldeak eskainiko duen ikasturte amaierako dantza emanaldia da honako hau. Talde honek datorren urtean 50 urte beteko ditu. Murixkako dantzariak duten ukitu bereziak, betiko dantza tradizioaletan jardungo dute, hori bai, modu berrietara egokituak. Hala ere, horretaz gain, aurten koreografia berezia eta berria eskainiko dute. Denok ezagutzen dugun taldea da, guztion gustukoa, baina aurtengo jardunaldiak direla eta, ez galdu emanaldia.

Ekainak 17 larunbata 20:30etan GEZALA AUDITORIUMA MUSI TAP TIP TAP CLAP TALDEA

KLAKETA EMANALDIA

Tip Tap elkarteak eskainiko duen emanaldi zoragarri honetan, dantza, zuzeneko musika eta antzerkia nahasteko asmoa dute. Klaketa-taren historian zehar bidaiatuko dugu, estilo ezberdinak ikusiz: afrikar perkusiotik hasi eta swing, funky edo jazz bezalako estiloetatik iragango gara. Dantza eta musikaren fusioaren bidez arte honen historiaren berri izango dugu.

Alde batetik, *Samar* musika taldea, bestetik, *Mailubana* antzerki taldea, eta azkenik, dantzariak: Celine Urzaiz Lezoarra, Larraitx Ugartemendia Erreteriarra eta Kataluniako dantzari eta koreografo ospetsua den Jep Melendez.

Oharra: Dantzarien asmatan bada egunean zehar jentile nahikoa apuntatuko baltiz- dantza tailerrak eta ikastaroak antolatzea (klaketa eta dantza garaikidea haurrentzat eta helduentzat). Irakasletik Larraitx Ugartemendia (haurrentzat), Jep Melendez klaketa helduentzat eta Silvia Hoyos (Dantza Garaikidea). Informazioa gehiago 630 705 594 telefonoan eta tipataps@hotmail.com korreoan.

Uztailak 1 larunbata 22:30etan GEZALA AUDITORIUMA "4 KOREOGRAFIA"

DANTZA GARAIIKIDEAREN EMANALDIA

Okerrik ezean, lehenengo aldiz Lezon Dantza Garaikidea. Euskal Herriko lurralde ezberdinetatik hamar dantzari eta lau koreografia ikusteko aukera izango dugu. Bertan, dantza garaikidea eta ikus-entzunezkoak nahastuta egungo dantzaren bide berriak urratzen dira. Koreografia hauek Lezon izango dute estrainaldia, nahiz eta gero Euskal Herrian zehar ikusi ahal izango diren.

Dantza garaikidearen lehengo saioa da hau. Beraz, ez galdu gazte huen dantza eta koreografiak ikusteko aukera. Bere laburtasunean, argi geratuko zaigu lau koreografia huen eta dantzarien erabateko maila, energia, malgutasuna, adierazkortasuna edota barneadostasuna bezalako kontzeptuetan ikusteko aukera izango dugu. Bertan, dantza garaikidea eta ikus-entzunezkoak nahastuta egungo dantzaren bide berriak urratzen dira. Koreografia hauek Lezon izango dute estrainaldia, nahiz eta gero Euskal Herrian zehar ikusi ahal izango diren.

Hamar dantzari eta lau koreografia:

APPOINTMENT & DISAPPOINTMENT

Koreografia: Maider Oiartzabal eta Iñaki Fortun; **Interpretazioa:** Maider Oiartzabal eta Iñaki Fortun; **Musika:** Barietatea; **Argitazpena:** Telesonic; **Soinua:** Telesonic

JIN JAN JUN

Koreografia: Ideies Blai dantza; **Interpretazioa:** Koldo Mattin Agirregomezkorta, Estitxu Campos eta Eider Mendizabal; **Musika:** (Diseinua: D.J. Txema Mute Ali; **Konponketak:** Andoni Cuervo); **Bideoak:** Koldo Mattin Agirregomezkorta. Amaia Sansek utzitako irudiak; Jantziak: Beatriz Olazabal.

TENTATIVA

Koreografia: MAI-MY; **Interpretazioa:** Myriam Perez, Maite Arroitauregi, Víctor Iriarte; **Musika:** Maite Arroitauregi; **Argitazpena:** Eneko Aranzasti, Saroa; **Soinua:** Eneko Aranzasti; **Bideoa:** Víctor Iriarte

EL PAÍS DE LAS ÚLTIMAS COSAS

Koreografia: Sara Susaeta eta Nerea Urbieto; **Interpretazioa:** Sara Susaeta eta Nerea Urbieto; **Musika:** Hainbat; **Argitazpena:** Telesonic; **Soinua:** Telesonic

Gezala

AUDITORIUMA

K
U
L
T
U
R
A
K

